Azaroaren 18 eta 19an Deustuko Unibertsitatetik online bidezko emanaldiarekin Kooperatiben arteko kooperazioaren printzipioari buruzko Kongresua ospatu da, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak antolatuta. Bi jardunaldietan zehar, printzipio honen aplikaziotik sor daitezkeen ondorio juridiko eta ekonomikoak jorratu dira. Kongresua Zoom plataformaren bitartez egin da eta 150 partaide baino gehiago konektatu dira egunero.

Javier Divar, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkartearen lehendakaria

Jokin Díaz Arsuaga, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaria

Nazario Oleaga, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren lehendakariordea

Gema Tomás Martínez, Zuzenbide Fakultateko Dekanoa

Kongresuaren aurkezpena Javier Divar jaunak, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkartearen lehendakariak, Jokin Díaz jaunak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendariak, Nazario Oleaga jaunak, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren lehendakariordeak, eta Gema Tomás andreak, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Dekanoak egin zuten.

Vega María Arnáez Arce, Kongresuko lehen jardunaldiko mahai-burua

Lehenengo saioa Vega María Arnáez Arce andreak zuzendu zuen.

Lehenengo jardunaldian, Kongresuko lehen mahaian, Javier Divar doktoreak esan bezala, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak 1966an Vienako Kongresuan kooperatiben printzipio hau ezarri zuen lehenengoz, nahiz eta Rochdale Estatutuak egin zirenetik aurrera kooperatiben arteko lankidetzari buruz hitz egin. Printzipio honen ondorioz, kapitalismoaren eta ekonomia estatalisten ordezko eredu ekonomikoa bultzatu da.



Javier Divar: “Un enfoque histórico y doctrinal del principio de cooperación entre cooperativas”

Jarraian, Alejandro Martínez Charterina doktoreak printzipio honen bilakaera aztertu zuen, ikuspegi historiko eta doktrinaren ikuspegitik. Printzipioaren helburua da merkatuen zabalkundeari eta enpresa kapitalisten hazkundeari erantzutea, bertan lehiatu behar baitute kooperatibek. Kooperatiben arteko lankidetza beharrezkoa da herri, estatu, erregio eta nazioarte mailan.



Alejandro Martínez Charterina: “Un enfoque histórico y doctrinal del principio de cooperación entre cooperativas”

Azkenik, Dante Cracogna doktoreak printzipio honen arlo bikoitza nabarmendu zuen: batetik, kooperatiben arteko elkar-lana euren koordinazio, trebakuntza eta heziketarako, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren sorrera ekarriz (erakunde- eta ordezkaritza-integrazioa); eta bestetik, kooperatiben arteko integrazio ekonomikoaren beharra. Nolanahi den ere, printzipioaren aplikazioak legezko zailtasunak gainditu behar ditu kooperatibak integratu nahi direnean, legeek kooperatiba txikiak aintzat hartzen dituztelako edota zenbait jarduera (banka, aseguru, pentsio-planak) enpresa kapitalistentzat erreserbatzen dituztelako.



Dante Cracogna: “La cooperación entre cooperativas: ¿principio o necesidad?”

Lehen jardunaldi honetan ere, Kongresuko bigarren mahaian, bigarren mailako kooperatiben araubide juridikoa aztertu zen. Modu horretara, Enrique Gadea doktoreak bigarren mailako kooperatiben araubidea erakutsi zigun, lehen mailako kooperatibek osatzen dutenean. Hizlariak ohartarazi bezala, lehen mailako kooperatiben arteko lotura-maila bigarren mailako kooperatibaren sozietate-estatutuetan adosten dutena izango da. Halaber, nabarmen utzi zuenez, euskal legeak kautelazko neurriak ezarri ditu bazkideren batek baja hartuz bigarren mailako kooperatiba kolokan jartzen duenean, hots, urtebeteko aurreabisua edo alde egiten duen kooperatibak bigarren mailakoarekin zituen konpromezu guztiak betetzea.

Enrique Gadea: “Las cooperativas de segundo grado: régimen sustantivo”

Jarraian, Marina Aguilar doktoreak bigarren mailako kooperatiben zerga-araubidea aztertu zuen. Hasteko, bigarren mailako kooperatiba eratzea edota bazkide berriak horretara sartzea Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitatearen mendeko eragiketak dira; gainera, Sozietateen gaineko Zergaren berregituratze-eragiketen araubide berezia aplika dezakete. Hurrenik, bigarren mailako kooperatibaren araubide fiskala izango da bere bazkide diren kooperatiben araberakoa. Amaitzeko, bigarren mailako kooperatibaren eta bere bazkideen arteko eragiketak eragiketa lotuak dira; ez ordea, bigarren mailako kooperatibaren eta lehen mailako kooperatiben bazkideen artekoak, ezta lehen mailako kooperatibetako bazkideek elkarren artean egindakoak ere, hirugarrenekin egindakotzat jotzen baitira.

Marina Aguilar: “Las cooperativas de segundo grado: régimen fiscal”

Lehen jardunaldia amaitzeko, Carlos Vargas doktoreak abuztuaren 2ko 13/2013 Legearen ezaugarri nagusiak azaldu zituen, nekazaritzako elikagaien kooperatibak batzea sustatzeko. Autonomia-erkidego batzuetako kooperatibak elkarren artean batzea bultzatu nahi da Lehentasunezko Elkartze Erakundeak sortuz. Modu horretara, laguntza publikoetara lehentasunez hel daitezke eta merkatuan askoz lehiakorragoak izan daitezke. Espainian egun hamaika daude eta bakoitzaren urteko fakturazioa 750 milioi eurotik gorakoa da.

Carlos Vargas: “La Ley 13/2013, de 2 de agosto, de fomento de la integración de cooperativas agroalimentarias”

Azaroaren 19an Kongresuaren bigarren jardunaldia ospatu zen Santiago Larrazabal Basáñez jaunaren zuzendaritzapean.



Santiago Larrazabal, Kongresuko bigarren jardunaldiko mahai-burua.

Bigarren jardunaldian, Fernando Sacristán doktoreak kooperatiben arteko akordioak jorratu zituen. Estatuko legean, akordioaren emaitzak nahitaezko erretserba funtsean sartu behar direnez, mota honetako akordioak ez dira bultzatzen; autonomia-erkidegoetako legeetan, ostera, bestelako helbururik izan dezakete. Kooperatiben arteko akordioa sinatzea batzar nagusiari dagokio, legeek hala ezarriz gero. Kooperatiben arteko akordioak zerikusia izan behar

du akordioa sinatu duen kooperatibaren sozietate-helburuarekin, esaterako, elkarren arteko horniduretarako, edota zerbitzuak modu esklusiboan elkarren artean emateko.

Fernando Sacristán: “Los acuerdos intercooperativos”

Jarraian, Javier Arrieta doktoreak lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileen lanbide-araubidea aztertu zuen enpresa-taldeei begira. Talde barruan bazkide langileen zortzi egoera gatazkatsu aurkeztu zituen: zerbitzu-komisioak, taldeko enpresekin lehiatzeko debekua, taldeko beste kooperatibetan birkokatzea, arrazoi ekonomikoengatiko bajak, enpresa-talde faltsuak sortzea, Gizarte Segurantzaren enpresa-kuoten hobariak, langabeziagatiko prestazioa kobratzea ordainketa bakarrean, eta greba-eskubidea.

Javier Arrieta: “Las cooperativas y los grupos de empresa”

Hirugarrenez, Gonzalo Martínez Etxeberria doktoreak adierazi zuenez, kooperatiba faltsuak daude; merkatuan jarduten dute abantaila ekonomikoak lortzeko asmoarekin itxuraz kooperatiben balioak eta ezaugarriak betetzen dituztela. Kooperatiba faltsu horietan bazkide autonomo gisa inoren konturako langileek lan egiten dute; modu horretara, kooperatiben mugimendu osoari eragiten diote erabiltzailea edo kontsumitzailea nahasiz. Kooperatiben mugimenduak halako kooperatiba faltsuak antzeman eta kanporatu beharko lituzke, botere publikoen laguntzarekin.

Gonzalo Martínez Etxeberria: “La cooperación entre cooperativas como herramienta básica en la identificación de falsas cooperativas”

Amaitzeko, Eba Gaminde doktoreak kooperatibak hazteko ereduak erakutsi zituen. Lehen mailako kooperatiben arteko hazkundea bigarren mailako kooperatiben bitartez gertatu ohi da. Beste aukera bat kooperatiba-taldeak dira, buru den erakunde bat eta zuzendaritza bateratuarekin, baina ez luke nortasun juridikorik izango. Halaber, kooperatiba mistoak ere aukera daitezke bazkide kapitalista kooperatiban parte hartuz; halakoetan, ekarritako kapitalak kooperatiba haztea errazten du. Eta azkenik, kooperatiben arteko akordioak beste aukera bat izango lirateke.



Eba Gaminde: “La cooperación entre cooperativas: modelos de crecimiento de los grupos cooperativos”

Deolinda Meira: "Reflexão sobre o regime jurídico dos grupos económicos cooperativos em Portugal"

Pedro Jesús González-Perabá MIralles: "Análisis comparado de la fiscalidad de los grupos cooperativas en Euskadi y en territorio común".



Martí Rius Coma: "La necesaria cooperación entre cooperativas de iniciativa social como agentes estratégicos en la prestación de servicios sociales: puesta en valor de la participación democrática y la experiencia en gestión".

Kongresuaren bukaeran, hiru ikertzaileek euren komunikazioak aurkeztu zituzten. Deolinda Meirak Portugalgo legeriako kooperatiba-taldeen araubide juridikoa azaldu zuen. Pedro Jesús González-Perabá Mirallesek konparatu zuen kooperatiba-taldeen arauketa fiskala lurralde erkidean eta foru-lurraldeetan. Eta Martí Rius Comak gizarte ekimeneko kooperatiben arteko lankidetza aztertu zuen zerbitzu publikoak ematean.